

ANEXO

Dekretua / Decreto:	1338 / 2017	Erref. / Ref.:	MKK/amu
Gaia / Asunto:	APROBACIÓN DE LAS NORMAS DE USO DEL PISO DE ACOGIDA		
Arloa / Área:	GIZARTE ZERBITZUA / SERV-SOCIALES		
Interesduna / Interesado:			

**GIZARTE-PREMIAK ETA ETXEKO
INDARKERIAREN EMAKUME
BIKTIMAK ARTATZEKO HARRERA-
ETXEBIZITZAREN ERABILERA-
ARAUAK**

**NORMAS DE USO Y DISFRUTE DEL
PISO DE ACOGIDA PARA LA
ATENCIÓN DE SITUACIONES DE
URGENCIA SOCIAL Y PARA
MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA
DOMÉSTICA.**

ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen helburua honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen zerbitzuetarako eskubidea sustatu eta bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala araututa eta antolatuta, eta prestazio eta zerbitzuetarako sarrera eskubide subjektibo gisa ezarrita.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Eusko Jaurlaritzako Dekretuak arautu zituen prestazioen eta zerbitzuen betekizunak eta irizpideak (II. kapitulua), sarrera-prozedurak (III. kapitulua) eta edukia (IV. kapitulua); horrela, aipatutako 12/2008 Legearen eskubide subjektiboa zehaztu eta finkatu zuen.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales tiene por objeto promover y garantizar en el ámbito de la CAPV el derecho a las Prestaciones y Servicios Sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal configurando el acceso a las prestaciones y servicios como un derecho subjetivo.

El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, del Gobierno Vasco, de Cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, regula los requisitos y criterios (Capítulos II), los procedimientos de acceso de acceso (Capítulo III) y el contenido de cada prestación y servicio (Capítulo IV) dando contenido y delimitado el derecho subjetivo proclamado en la citada Ley 12/2008.

185/2015 Dekretuaren I. eranskinak arautu zituen gizarte-premietarako eta etxeko indarkeriaren emakume biktimetarako ostatu-zerbitzuak / abegi-etxeak.

Zehazki, 185/2015 Dekretuaren I. eranskinean definitu zen ostatu-zerbitzua / harrera-etxebizitza; helburuak, zerbitzu- eta prestazio-motak, biztanle-hartzaileak eta sarrera-betekizunak ezarrita. Zerbitzu hau arautzen duen fitxa arau hauei eransten da.

Lehengo legeak eta dekretuak aurreikusitakoa betez eta garatuz, beharrezkoa da kudeaketa-irizpide komunak antolatzea, Getxoko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuko profesionalak ezagutza berdina izan ditzaten, eta Getxoko biztanleentzat ere erreferentzia izan daitezen, zerbitzuari dagokionez.

El Anexo I al Decreto 185/2015, regula el Servicios de alojamiento/Piso de acogida para la atención de situaciones de urgencia social y para mujeres víctimas de violencia doméstica.

Concretamente, el Anexo I al Decreto 185/2015 define el servicio de alojamiento/piso de acogida establece sus objetivos del servicio, tipos de servicio y prestaciones, delimitando la población destinataria y requisitos de acceso al mismo. Se anexa a estas normas la Ficha reguladora de este servicio.

De conformidad con las previsiones de la citada Ley y Decreto , y como desarrollo de las mismas, se considera necesario ordenar criterios comunes de gestión con el fin de generar un conocimiento uniforme entre l@s profesionales del Servicio social de base del Ayuntamiento de Getxo y que pueda servir también como referencia a la población de Getxo en lo que respecta a este servicio.

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Helburua eta xedea.

Harrera-etxebizitzaren erabilera-arauek xede dute kudeaketa-irizpide komunak antolatzea ostatu-zerbitzurako / harrera-etxebizitzarako –Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan jasotakoa–, Getxoko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuko profesionalak ezagutza berdina izan ditzaten, eta Getxoko biztanleentzat ere erreferentzia izan daitezen.

CAPITULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1º.- Objeto y objetivo

Las Normas de uso y disfrute del piso de acogida tienen como objeto ordenar criterios comunes de gestión del Servicio de alojamiento/Piso de acogida regulado en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales con el fin de generar un conocimiento uniforme entre l@s profesionales del Servicio social de base del Ayuntamiento de Getxo y que pueda servir también como referencia a la población de Getxo.

Getxoko Udalak harrera-etxebizitza dauzka, hornituta, etxebizitza-eraikin arrunt batean.

El Ayuntamiento de Getxo dispone de pisos de acogida equipados que se encuentran ubicados en un edificio ordinario de viviendas.

Harrera-etxebizitzako egonaldia doakoa izango da, harik eta Getxoko Udalak zerbitzuaren prezio publikoa ordenantza fiskal egokiaren bitartez arautu arte.

La estancia en el Piso de acogida será gratuita hasta que el Ayuntamiento de Getxo a través de la correspondiente ordenanza fiscal regule el precio público por este servicio.

Aurrekoa gorabehera, etxeko indarkeriaren emakume biktimetzako harrera-etxebizitzetako egonaldia doakoa izango da, urriaren seiko 185/2015 Dekretuak ezarritakoa betez.

No obstante lo anterior, la estancia en piso de acogida para mujeres víctimas de violencia doméstica será gratuita en virtud de lo establecido en el Decreto 185/2015, de seis de octubre.

II. KAPITULUA. PROZEDURA.

SARRERA-

CAPITULO II. PROCEDIMIENTO DE ACCESO.

2. artikulua.- Ohiko sarrera-prozedura.

Art. 2º.- Procedimiento ordinario de acceso.

Interesdunak edo bizikidetzaren unitateko kide batek eskatuta hasiko da.

Se iniciará a petición de la persona interesada o de alguna persona que forme parte de la unidad de convivencia.

Bizikidetzaren unitateak joko da etxebizitza berean bizi den pertsonen multzoa, zeinen artean ahaidetasun-, kideetasun- edo adiskidetasun-loturak dauden.

Se entiende por unidad de convivencia al conjunto de personas que viven habitualmente bajo el mismo techo, y que pueden estar ligadas entre ellas por lazos de parentesco, afinidad o amistad".

3. artikulua.- Larrialdietako prozedura.

Art. 3º.- Procedimiento de urgencia.

Beste gizarte-agente batzuek (poliziak, epaitegiek), gizarte-larrialdietako egoeretan parte hartu ostean, horien berri ematen dutenean hasiko da.

Se iniciará por comunicación de otros agentes sociales (policia, juzgado) tras la intervención de estos en situaciones de urgencia social

Honako hau ulertuko da gizarte-larrialdi gisa: ustekabeko gertaera batek eragindako

Se entiende por urgencia social la situación producida por un hecho no previsto, debido

egoera, arrazoi naturalengatik gertatutakoa edo eragindakoa, zeina gaitasun pertsonaletan, bizirauteko baliabideetan, gizarte-harremanetan edo sareetan, familia-harremanetan eta segurtasunean eragina duen. Ondorioz, horren eraginpeko pertsona edo pertsonak babesgabetasun-egoera larrian geratzen dira eta premiazko lehen arreta behar dute, berehalakoa eta saihestezina, gizarte-zerbitzuen euskal sistemak eman beharrekoa, gertaerak eragindako gizarte-beharrak aztertuz eta egoerak okerrera egitea eta kalte handiagoa sortzea saihestuz. (Ikusi zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 28. artikulua).

4. artikulua.- Ostatua berehala ematea.

Muturreko eta premiazko beharren kasuetan, zeinetan berehala hartu behar den ostatu, aldi baterako egonaldia egin ahalko da Getxoko hotel batean; baina soilik Getxoko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuak behar-egoeraren balorazio egokia egiteko behar duen denboran.

Edonola ere, harrera-etxebizitzarako sarrera 15 egun baino lehenago bermatu beharko da, beharrerako eskaera egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

5. artikulua.- Balorazio teknikoa.

Getxoko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuak derrigorrez egin beharko du egoeraren ebaluazio-teknikoa, norbanakoarena eta bizikidetzak-unitatearena, eta horren arabera proposatuko da harrera-etxebizitza baliabiderik egokiena bezala, planteatutako

a causas naturales o provocadas, que afecta y compromete las capacidades personales, los recursos y medios de subsistencia, las relaciones o redes sociales y familiares y la seguridad, quedando la persona o personas afectadas en una situación de desprotección grave, que precisa de una primera atención de urgencia, inmediata e ineludible para abordar, desde el Sistema Vasco de Servicios Sociales, las necesidades sociales derivadas de dichos hechos y evitar que la situación se agrave y genere mayor perjuicio (ver Art. 28 del Decreto 185/2015, de Cartera de Servicios).

Art. 4º.- Cobertura inmediata de alojamiento.

En los casos de extrema y urgente necesidad en los que la cobertura de alojamiento tenga que ser inmediata se podrá optar por una estancia temporal en un centro hotelero de Getxo y solo durante el tiempo necesario para llevar a cabo la adecuada valoración de la situación de necesidad por parte del Servicio social de base del Ayuntamiento de Getxo.

En todo caso, deberá garantizarse la entrada en el piso de acogida en un plazo inferior a 15 días siguientes a la demanda de la necesidad.

Art. 5º.- Valoración técnica.

El Servicio social de base del Ayuntamiento de Getxo realizará de manera preceptiva la valoración técnica de la situación de la persona y de la unidad de convivencia en el que se propondrá el piso de acogida como recurso idóneo a la situación planteada.

egoerarako.

Oinarrizko koordinatzaileak gizarte-zerbitzuko balorazio teknikoak egiaztatu, eta oniritzia emango du.

6. artikulua.- Harrera-etxebizitzan sartzeko baimena.

Sartzeko baimena Dekretu baten bidez emango da, eta interesdunari jakinaraziko zaio noiz arte egon ahalko duen (gehienez) harrera-etxebizitzan.

III. KAPITULUA. ERABILERA-ARAUBIDEA

7. artikulua.- Denborazkotasuna.

Zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuari jarraikiz, harrera-etxebizitza erabiltzeko eskubideak, gehienez, lau hilabete iraungo du, eta beste lau hilabetez luzatu ahalko da, balorazio tekniko egokia egin ostean.

8. artikulua.- Harrera-etxebizitzan bizi daitekeen pertsona-kopurua.

Udala kide guztiak hartzen saiatuko da; horretarako, beharrezkotzat jotzen diren ezohiko neurriak hartuko ditu.

Zerbitzua bizikidetzaren unitate batek baino gehiagok erabili ahalko du, hala eskatzen duten inguruabarrak badaude eta udaleko gizarte-zerbitzuek egokia baderitzote.

La valoración técnica se contrastará con la Coordinadora del Servicio social de base quién deberá darle el visto bueno

Art. 6.- Autorización de ingreso en el Piso de acogida.

La autorización de ingreso se realizará mediante Decreto que se notificará a la persona interesada e indicará el tiempo máximo de estancia en el piso de acogida.

CAPITULO III. REGIMEN DE USO Y DISFRUTE

Art 7.- Temporalidad.

En base a lo establecido en el Decreto 185/2015 de 1 de octubre, de Cartera de servicios, el derecho de uso y disfrute del piso de acogida será como máximo de cuatro meses pudiendo prorrogarse durante otros cuatro tras la correspondiente valoración técnica.

Art. 8.- Nivel de ocupación del piso de acogida.

El Ayuntamiento procurará acoger a todas las personas que la integren, debiendo adoptarse para ello las medidas extraordinarias que se estimen necesarias.

El servicio podrá ser utilizado por varias unidades de convivencia si concurren circunstancias que así lo requieran y sea valorado como adecuado por los servicios sociales municipales.

9. artikulua.- Egonaldiak sortutako gastuak.

Getxoko Udalak bere gain hartuko ditu egonaldia dela-eta sortzen diren gastu guztiak. Horien barruan sartuko dira udaltasen eta -zergen ondorioz sortutako gastuak eta hornidura-zerbitzuenak (elektrizitatea, ura eta gasa). Hala ere, egokitzat jotzen diren neurriak hartu ahal izango dira, erabiltzaileek gehiegizko gasturik ez egiteko edo, egin izatekotan, berorrek ekarritako kalteak konpontzeko.

Etxebizitza bidegabe erabiltzearen ondorioz sortutako gastuak eta, beraz, erabiltzaileari egotzi dakizkiokeenak, berorrek ordaindu beharko ditu.

10. artikulua.- Ostatu-zerbitzuko /Harrera-etxebizitzako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Oro har, zerbitzu honen erabiltzaileek ondoko xedapenek jasotako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte: gizarte-zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearenak eta apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren lehenengo atalarenak; dekretu horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea.

Zehazki, zerbitzuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- Gizarte-langile arduradunak egindako bere egoeraren jarraipen-balorazio bat izateko eskubidea.
- Udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuko profesionalen eskutik, gizarte-

Art. 9.- Gastos derivados de la estancia.

Todos los gastos derivados de la estancia correrán a cargo del Ayuntamiento de Getxo. Quedan incluidos en estos gastos los derivados de tasas e impuestos municipales y de suministros (electricidad, agua y gas) si bien se podrán tomar las medidas oportunas para evitar y en su caso subsanar los perjuicios derivados de un gasto abusivo por parte de las personas usuarias.

Los gastos derivados del uso incorrecto del piso que sean por ello imputables a la persona usuaria correrán a cargo de esta.

Art. 10.- Derechos y obligaciones de las personas usuarias del servicio de alojamiento/piso de acogida.

Con carácter general, las personas usuarias de este servicio disfrutarán de los derechos y obligaciones contemplados en la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, así como a lo establecido en la Sección Primera del Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de Derechos y Obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

Con carácter específico, las personas usuarias de este servicio disfrutarán de los siguientes derechos:

- Derecho a disponer de una valoración de seguimiento de su situación realizada por la Trabajadora Social de referencia.
- Derecho a recibir intervención socioeducativa y/o psicosocial por parte

- | | |
|--|---|
| <p>hezkuntzazko esku-hartzea edota esku-hartze psikosoziala jasotzeko eskubidea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kasuaren gizarte-langile arduradunarengandik gizarte-laguntza jasotzeko eskubidea. - Beharrezkotzat jotzen badira, bitartekaritza-zerbitzuak jasotzeko eskubidea. - Etxebizitzan egoteko eskubidea, zerbitzuaren araudiak egonaldia amaitzeko jaso dituen arrazoietakoa bat ez bada gertatzen. - Etxebizitzako gelak eta denek erabiltzeko dauden objektuak, gailuak eta tresnak erabiltzeko eskubidea. - Etxebizitzako egonaldia borondatez amaitzeko eskubidea. | <p>de los profesionales del servicio social de base del municipio.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Derecho a recibir el acompañamiento social de la Trabajadora social referente del caso. - Derecho a recibir los servicios de mediación-intermediación en caso de considerarlos necesario. - Derecho a permanecer en el piso mientras no concurra alguna de las causas de finalización de la estancia señaladas en la normativa del servicio. - Derecho a hacer uso de las dependencias del piso y los objetos, aparatos y utensilios de uso común que se encuentren en el. - Derecho a cesar en la permanencia en el piso por voluntad propia. |
|--|---|

Bestalde, zerbitzuaren erabiltzaileek betebeharrak zehatz hauek izango dituzte:

Con carácter específico, las personas usuarias de este servicio deberán cumplir con las siguientes obligaciones:

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeko familia- / banakako planean gizarte-langilearekin adostutako helburuak eta zereginak betetzea. - Beharrezko administrazio-kudeaketak edota bestelako kudeaketa judizialak egitea, zerbitzuak erabiltzea eragin duen egoera aldatzeko. - Ez uztea zerbitzua erabiltzen Getxoko Udalaren baimena ez duten pertsonen, haiekin duten ahaidetasuna edo harremana edozein dela ere. - Higiezinan guztienak diren elementuak arduraz eta kontuz erabiltzea, hala nola: eskailera, ataria eta, oro har, zerbitzua erabiltzeko balio duen guztia. - Auzotasun oneko jokabide-arauak betetzea, hau da, bizikidetzaren ordena ez asaldatzea, eta gainerako erabiltzaileen edo auzokoen lasaitasuna aztoratzen duen jarrerarik ez erakustea. - Aldez aurretik baimena jaso izan | <ul style="list-style-type: none"> - Cumplir los objetivos y tareas consensuados con la trabajadora social en el plan individual/familiar de intervención. - Efectuar las oportunas gestiones administrativas y/o judiciales de cualquier otra orden necesarias para modificar la situación que ha provocado el uso de estos servicios. - No permitir el uso del servicio a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Getxo, independientemente de parentesco o relación que tenga con ellas. - Usar con toda diligencia, cuidado y esmero los elementos comunes del inmueble tales como: escalera, portal y, en general, de cuanto sirve para el aprovechamiento y disfrute del servicio. - Observar normas de conducta de buena vecindad no alterando el orden de convivencia realizando cualquier conducta |
|--|---|

- ezean, zerbitzuan altzaririk edo etxeko tresnarik ez sartzea. Erabilera pertsonalekoak bakarrik sartu ahal izango dira.
- Zerbitzuan animaliarik ez sartzea, eta material antihigieniko edota arriskutsurik ez biltegitratzea; berariaz debekatuta dago armak izatea.
 - Getxoko Udaleko gizarte-zerbitzuetako langileei edo haiek baimendutako beste pertsona batzuei etxean sartzen uztea.
 - Etxeko giltzen kopiarik ez egitea, ez eta beste pertsona bati uztea ere. Egonaldia amaitutakoan, Getxoko Udalako gizarte-zerbitzuei itzuli beharko zaizkio giltzak, etxea uzten duten egunean bertan.
 - Zerbitzuaren etxearen helbidea inori ez esatea.
 - Ez titularra ez beste pertsonaren bat erroldatzea etxebizitza horretan, biztanleen udal erroldan.
 - Bizikidetzta-unitate desberdinen kideak bizi badira etxean, elkarbizitzaren arauak bete beharko dituzte garbiketari, higienerari, ordutegiei eta abarrei dagokienez. Nor bere seme-alabez arduratuko da, baldin baditu, bai eta bere gelako ordenaz, garbiketaz eta objektu pertsonalez ere. Guztiek erabiltzen dituzten esparruetako (korridorea, atondoak, sukaldeak, komuna, balkoiak etab.) etxeko lanen kasuan, akordio bat egin, errespetatu eta bete beharko dute.
 - Etxebizitzako gainerako erabiltzaileen pentsaera, iritzia eta ideologia errespetatzea eta nork bere iritzia adierazteko eskubidea izatea.
 - Etxebizitza ez uztea, gizarte-langile arduradunari jakinarazi eta berarekin erabaki barik.
- que perturbe el sosiego del resto de personas usuarias o vecindario.
- No introducir en el servicio, sin autorización previa, ningún mobiliario ni enseres domésticos, permitiéndose únicamente los de uso personal.
 - No introducir en el servicio animales ni almacenar materiales antihigiénicos y/o peligrosos, prohibiéndose expresamente la tenencia de armas.
 - Permitir el acceso al servicio al personal de los servicios sociales del Ayuntamiento de Getxo o a otras personas autorizadas por ellos.
 - No hacer copia de las llaves del servicio ni prestárselas a otra persona. Al finalizar la estancia se deberán entregar las llaves en los servicios sociales del Ayuntamiento de Getxo en el mismo día que se abandone el servicio.
 - Mantener el anonimato de la dirección del servicio.
 - No empadronarse, ni el titular ni ninguna otra persona, en el Padrón Municipal de Habitantes en ese domicilio.
 - En caso de que el servicio sea compartido por varias personas de distintas unidades de convivencia, se deberán cumplir las normas de vida colectivas en cuanto a limpieza, higiene, horarios, etc. Cada uno será responsable de sus hijos e hijas si los hubiere y del orden y limpieza de su habitación y objetos personales. Respecto los trabajos domésticos de los diferentes elementos comunes de uso (pasillo, hall, cocina, baño, balcones, etc.), llegaran a un acuerdo que habrá que respetar y cumplir.
 - Respetar la libertad de pensamiento, opinión e ideología del resto de las personas usuarias del piso, teniendo derecho a expresar su opinión.

IV. KAPITULUA. HARRERA-ETXEBIZITZA ERABILTZeko ESKUBIDEA AMAITZEA

11. artikulua.- Ostatu-zerbitzua / Harrera-etxebizitza erabiltzeko eskubidea amaitzeko arrazoia.

Emakidaren iraupena amaitzeak, heriotzak edo uko egiteak ez ezik, honako hauek ere ekarriko dute harrera-etxebizitza erabiltzeko eskubidea amaitzea:

- Zerbitzua ematea eragin zuen behar-egoera desagertzea.
- Zerbitzua esleitzeko kontuan hartu diren datuak ematean, zenbait ezkutatu, edo gezurrezkoak adierazi izana.
- Zerbitzua erabiltzeko eskatutako betekizunen bat galtzea.
- Erabiltzaileek araudi honetan ezarritako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.

12. artikulua.- Erabiltzeko eskubidea amaitzeko prozedura.

Erabiltzeko eskubidea amaitzeko prozedura ofizioz hasiko da, interesdunak uko egiten duen kasuetan izan ezik. Kasu horretan, dekretu bidez onartuko da ukoa; horren bidez, honako alderdi hauek jakinaraziko dira: eskubidearen azkentzea, baja-egoera (data jakin batetik aurrera) eta espedientearen itxiera nahiz artxibatzea.

Ofizio-prozedura hasitakoan, betebeharrak

- No ausentarse del servicio sin haberlo notificado y acordado con la Trabajadora Social de referencia.

CAPITULO IV. FINALIZACIÓN DEL DERECHO DE USO Y DISFRUTE DEL PISO DE ACOGIDA

Art. 11.- Causas de la finalización del derecho de uso y disfrute del piso de acogida.

Además de por finalización del tiempo concedido, fallecimiento o renuncia, el derecho de uso y disfrute del piso de acogida podrá finalizar por:

- Desaparición de la causa de necesidad que generó la prestación del servicio.
- Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del servicio.
- Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para acceder al servicio.
- Por incumplimiento reiterado de las obligaciones de las personas usuarias previstas en esta normativa.

Art. 12. Procedimiento de finalización del derecho de uso y disfrute.

El procedimiento de finalización del derecho de uso y disfrute se iniciará de oficio, excepto en los casos de renuncia por parte de la persona interesada, en cuyo caso se aceptará la renuncia por Decreto que declarará extinguido el derecho, la situación de baja a partir de una fecha determinada y el cierre y archivo del expediente.

Iniciado el procedimiento de oficio y con

behin eta berriz urratu izana edo erabiltzeko eskubidea azkentzeko balizko arrazoiak jakinarazten dituen txostenak oinarri hartuta, urraketa horien berri emango zaio interesdunari, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio alegazioak egin ditzan.

Epe hori igarotakoan, alkateak dekretua emango du eta interesdunak abegi-etxea erabiltzen jarraitzeko duen eskubidearen azkentzea adieraziko du edo, hala badagokio, etxea izateko duen eskubidea eta zerbitzuan duen alta-egoera baieztatuko ditu

13. artikulua.- Erabilera-arauak eguneratzea.

Zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren edukian aldatzen badira zerbitzu honetan eragiten duten alderdiak, horien arabera eguneratu eta egokituko dira erabilera-arauak.

Era berean, koordainketaren prozedurara egokituko dira Getxoko Udalak zerbitzuaren prezio publikoa araututakoan, ordenantza fiskal egokiaren bitartez.

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<http://www.getxo.eus/> administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

base en los informes que pongan de manifiesto el incumplimiento reiterado de las obligaciones o la posible causa o causas de extinción del derecho de uso y disfrute, se notificará a la persona interesada, dichos incumplimientos o causas, concediéndole un plazo de diez (10) días hábiles para la formulación de alegaciones.

Transcurrido el plazo anterior, el Alcalde dictará Decreto declarando la extinción del derecho de la persona interesada a seguir disfrutando del piso de acogida o, en su caso, confirmando su derecho al piso y su situación de alta en el servicio.

Artículo 13º.-Actualización de las Normas de uso y disfrute.

Las Normas de uso y disfrute se actualizarán y adecuarán al contenido del Decreto 185/2015, de Cartera de Servicios en aquellos supuestos en los que éste sufra alguna modificación en aquellos aspectos que incidan en este servicio.

Del mismo modo, se adecuarán al procedimiento del copago cuando el Ayuntamiento de Getxo, a través de la correspondiente ordenanza fiscal, regule el precio público por este servicio.

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/> Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

ERANSKINA/ANEXO

Ostatu-zerbitzuak / Harrera-etxea (1.9.1)

Definizioa eta helburua	<p>Zerbitzu honek ostatu ematen die gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera baten ondorioz ostaturik ez izateari aurre egin ahal izateko edo etxeko indarkeriaren egoeratik biziberritu eta egoera hori gainditu ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsoneri eta bizikidetz-unitateei, betiere pertsona horiek babes-neurririk behar ez badute.</p> <p>Aldi baterakoa da. Egonaldia gehienez ere 4 hilabetez luzatu ahal izango da, eta salbuespen gisa iraupen bereko aldi batez luzatu ahal izango da.</p> <p>Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, harrera-etxean etengabe egon behar duen langilerik eta harrera-etxeari berariaz esleitutako langilerik eskaintzen ez duena, eta, hala badagokio, kanpo-laguntza egokiak antolatzen dituena, baita Udalaren Gizarte Zerbitzuen laguntza ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik beharrezkoak diren zerbitzuak eta/edo prestazioak lortzeko. Hartutako pertsonak etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeak badira, Udalaren Gizarte Zerbitzuak etxeko indarkeriaren biktimak artatzeko zerbitzu eta programa guztiekin koordinatuta jardungo du.</p> <p>Harrera-etxeak etxebizitza-erakin arrunt batean kokatzen dira normalean. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeek emakume horien kokapenaren konfidentialtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko dituzte eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzat soilik izango dira.</p> <p>Honako helburu hauek dituzte: a) gizarte-larrialdiko egoeretatik edo etxeko indarkeriako egoeretatik eratorritako ostatu-gabeziak eragindako krisi-egoera jakin batzuk gainditzen laguntzea erabiltzaileei; b) erabiltzaile horiek segurtasun-sentimendua izan dezaten ahalbidetzea.</p>	
Zerbitzu motak	<p>1.– Gizarte-premiazko egoerei erantzuteko harrera-etxea.</p> <p>2.– Etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxea.</p>	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuenak</i>	<p>Informazioa.</p> <p>Jarraipen-balioespena.</p> <p>Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, hala badagokio.</p> <p>Lagun egite soziala, hala badagokio.</p> <p>Bitartekaritza – bitartekotza, hala badagokio.</p>
Hartzaileak	<i>Egoera</i>	<p>Lehenengo motan: Gizarte-urgentziatzko egoera baten ondorioz aldi baterako ostaturik behar duten pertsonak edo bizikidetz-unitateak.</p> <p>Bigarren motan: Genero-indarkeriaren biktima izaki indarkeria gainditzeko prozesuan dauden emakumeak, baldin eta emakume horiek ostatu hartzeko aldi baterako alternatiba bat behar badute, baina babes-neurririk behar ez badute.</p>
	<i>Adina</i>	<p>18 urteko edo gehiagoko eskatzailea, eta, hala badagokio, eskatzailearen ardurapean, tutoretzapean edo zaintzapean egonik normalean harekin bizi diren pertsonak, adin nagusikoak edo adingabeak izan.</p>
Lortzeko baldintzak	<i>Administraziokoak</i>	<p>Eskatuko den baldintza bakarra preskripzio tekniko da, eta gizarte-urgentziatzko zerbitzutzat hartuko da Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 3.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.</p>
	<i>Premiazkoak</i>	<p>a) Langileen etengabeko presentzianik gabe ostatu-zerbitzu batean eman daitekeen intentsitate txikiko laguntza behar izatea.</p> <p>b) Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <p>c) Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo zerbitzuko bizikidetz normala larriki nahas dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.</p> <p>d) Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertea.</p>
Baterako ordainketa	<p>Baterako ordainketari lotutako zerbitzua.</p> <p>Doako zerbitzua genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.</p>	

Servicios de alojamiento / Piso de acogida (1.9.1)

Definición y objetivo	<p>Ofrece alojamiento a personas y unidades de convivencia que requieren una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de emergencia o urgencia social, o disponer de un domicilio desde el que poder recuperarse y superar una situación de violencia doméstica, siempre que no requieran medidas de protección.</p> <p>Es de carácter temporal. La estancia puede prolongarse un máximo de 4 meses, excepcionalmente con posibilidad de una prórroga de la misma duración.</p> <p>Es un servicio con baja intensidad de apoyo, que no cuenta con personal presente en el piso de forma permanente, ni con personal específicamente adscrito al mismo, articulándose, en caso necesario, los apoyos externos que resulten idóneos, así como el apoyo del Servicio Social Municipal en el procedimiento de acceso a los servicios y/o prestaciones necesarios del SVSS. Cuando las personas acogidas sean mujeres víctimas de violencia doméstica el Servicio Social Municipal actúa en coordinación con los diferentes servicios y programas de atención a las víctimas de violencia doméstica.</p> <p>Los pisos se ubican preferentemente en un edificio ordinario de viviendas. Los pisos de acogida para mujeres víctimas de violencia doméstica deberán adoptar medidas para garantizar la confidencialidad de su ubicación y serán destinados exclusivamente a mujeres víctimas de violencia doméstica.</p> <p>Sus objetivos son: a) ayudar a las personas usuarias a superar situaciones de crisis determinadas por la carencia de alojamiento derivada de situaciones de urgencia social o de situaciones de violencia doméstica; b) favorecer su sentimiento de seguridad.</p>	
Tipos de servicio	<p>1.– <i>Piso de acogida para la atención de situaciones de urgencia social.</i></p> <p>2.– <i>Piso de acogida para mujeres víctimas de violencia doméstica.</i></p>	
Prestaciones que articula	De Servicios Sociales	<p>Información.</p> <p>Valoración de seguimiento.</p> <p>Intervención socioeducativa y/o psicosocial, en su caso.</p> <p>Acompañamiento social, en su caso.</p> <p>Mediación – Intermediación, en su caso.</p>
Población destinataria	<i>Situación</i>	<p>En el primer tipo: Personas o unidades convivenciales que requieren temporalmente un alojamiento a consecuencia de una situación de urgencia social.</p> <p>En el segundo tipo: Mujeres víctimas de violencia doméstica en proceso de superación de la violencia que precisan una alternativa temporal de alojamiento sin requerir medidas de protección.</p>
	<i>Edad</i>	<p>Persona solicitante con 18 años o más y, en su caso, personas a su cargo, bajo su tutela o guarda y que convivan habitualmente con ella, sean mayores o menores de edad.</p>
Requisitos de acceso	<i>Administrativos</i>	<p>No se exigirá ningún requisito, al margen de la prescripción técnica, teniendo la consideración de servicio de urgencia social a los efectos previstos en el artículo 3.3 de la Ley de Servicios Sociales.</p>
	<i>De necesidad</i>	<p>a) Requerir un apoyo de baja intensidad que pueda prestarse en un servicio de alojamiento sin presencia permanente de personal.</p> <p>b) No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias de la red de servicios sociales.</p> <p>c) No padecer trastornos de conducta y/o presentar comportamientos que puedan perturbar gravemente el funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para las y los profesionales que pudieran intervenir.</p> <p>d) No rechazar el tratamiento que corresponda, en caso de padecer una enfermedad infecto-contagiosa y/o enfermedad mental.</p>
Copago	<p>Servicio sujeto a copago.</p> <p>Servicio gratuito para las mujeres víctimas de violencia doméstica.</p>	